


Euskal AEko Merkataritzako salmentak % 1,9 igo dira 2021eko lehen hiruhilekoan, urte arteko terminoetan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, Merkataritza % 1,0 igo da

Merkataritzaren sektorea (hau da, *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*) % 1,9 igo da prezio konstanteetan, behin kenduta egutegi-eraginak, 2021eko lehen hiruhilekoan aurreko urtearen aldean, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaroen eragina kenduta, salmentak % 1,0 igo dira 2021eko lehen hiruhilekoan.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Merkataritzaren barruan, salmenta errealean urte arteko bilakaera positiboa izan da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* (% 8,2) eta *Handizkako merkataritza* (% 2,7) adarretan; aldiz, *Txikizkako merkataritza* % 0,4 jaitsi da. Kontuan izan behar da ezen 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko eta horrek aldaketa handia ekarri zuela merkataritzaren sektorearen jardueran.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten hazkundera % 1,9koa izan da *Handizkako merkataritza* eta % 1,2koa *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*. *Txikizkako merkataritza* dagokionez, hiruhileko artean ez da aldaketarik egon salmentetan (% 0,0).

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. I/2021

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
ÍNDICE GENERAL	1,9	1,0	1,9
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	8,2	1,2	8,2
Handizkako merkataritza	2,7	1,9	2,7
Txikizkako merkataritza	-0,4	0,0	-0,4
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	4,9	1,2	4,9
Bizkaia	0,0	0,2	0,0
Gipuzkoa	3,4	2,2	3,4
ENPLEGUA	-3,2	-0,8	-3,2

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurraldeka, Araban % 4,9 igo dira salmentak eta Gipuzkoan % 3,4, urte arteko terminoetan. Bizkaian, ordea, ez da aldaketarik egon 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

2020ko laugarren hiruhilekoari dagokionez, antzera, Gipuzkoan % 2,2ko susperraldia izan da, Araban % 1,2koa eta, azkenik, Bizkaian % 0,2koa.

Euskal AEko *Merkataritzako* langile-indizea % 3,2 jaitsi da urte arteko aldiari, 2020ko eta 2021eko lehen hiruhilekoen artean; hau da, % 0,8 beheratu da 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatze Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, lehen hiruhileko indizea laginaren % **93,20ko estaldurarekin** kalkulatu da –informazio hori apirilean jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62